ASTEKARIA - 2010eko martxoaren 26an - XIII. urtea - Usurbil, 402. zenbakia

# Noaua!!

www.noaua.com



2008ko udatik hona, %65 igo da langabezia Buruntzaldean



## Itziar Dorronsoro eta Xabi Arruti,

# Saharako Elkartasun Maratoian




# Noaua! Kultur Elkarteko Bazkideen Batzar Nagusia

*EGUNA:* Martxoak 30, ASTEARTEA
*ORDUA:* Lehenengo deialdia, 19:00h
Bigarren deialdia, 19:15h
*TOKIA:* NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan
Bordaberri 3, behea



*GAI-ZERRENDA:*

1. 2009ko memoria eta balantze ekonomikoa
2. 2010eko egitasmoak eta aurrekontuak
3. Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
4. Galdera / erantzunak

## Albistea iruditan !!

# Buruntzaldeko Hamaikabat aurkeztu dute

Pertsonei zuzendutako gertuko politika eta parte hartzea sustatuko duena ardatz izango ditu Buruntzaldeko Hamaikabat alderdiko ordezkariek, martxoaren 22an Astigarragan burutu zuten aurkezpen saioan iragarri zutenez. Abertzaletasun historikoa sendotzea da euren helburuetako bat. Buruntzaldeko Hamaikabat alderdiaren esanetan, “herri honek lidergo berria behar du”. Herritarren gehiengo zabala ordezkatuko duen politika egitea nahi du Hamaikabat alderdiak. Inguruko udalerrietakoekin batera Usurbilgo ordezkariek parte hartu zuten, Luismari Ormaetxea buru zela. Usurbilgo bozeramalea Buruntzaldeko egiturako koordinatzaile orde izendatu dute.



USURBILGO ORDEZKARITZAK PARTE HARTU ZUEN AURKEZPEN SAIOAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

A-8AK KALTETUTAKO HERRI BIDEAK 5. OR.

2010EKO AURREKONTU PROIEKTUA 6. OR.

ATEZ ATEKOARI BURUZKO JARDUNALDIAK 8. OR.

%65 IGO DA LANGABEZIA ESKUALDEAN 9. OR.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARAZ

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.ESK 943372937 · 659602789



UNAI AGIRRE

# Gipuzkoan ere "0 Zabor"

Egun gutxi dira Usurbilgo Ituna aurkeztu zela. Eta gutxiago erraustegi-zaleek haien erantzuna eman dutela, Carlos Ormazabal buru dutela: haien bulegoetan erabaki zutena ez dezala herritarron partaidetzak zapuztu. Martxan dagoen alternatibaren aurrean, begiak itxi. Ez dira herriaren ordezkari, atzean ezkutatzeko bunkerra dute instituzio publikoa. Demokrazia lau urtetan behin egiten dute, eta gero 4 urtetako gehiegikeriak.

Erraustegia jartzea erabaki zutenean atez atekoa aldarrikatzen genuen, orain martxan ikusten dugu. Eta sistemak izugarrizko emaitza onak ematen ditu. Herri galdeketa ere eskatu genuen, baina alperrik, haiek kargu publikoaren atzeko trintxeran ziren eta. Usurbilen ordea egin da eta herriak argi esan du zer nahi duen. Lotsa gutxi behar du denborarik ez dagoela esateko denbora galtzen ibili denak, Usurbilgo atez ateko esperientziari ere oztopoak jartzen zizkioten bitartean. Esaten zuten erraustegia azken frakzio horrentzako zela, baina kopuru handiena erre nahi dute. Gezurrak haien trintxeratik!

A zer klase politikoa duguna, Ibarretxe-Lopeztarrak, PSE-PNV-H1. Zer ote dago ba erraustegiaren atzean? Herriarentzat kea eta zabortegi kutsagarriak, beste batzuentzat dirua. Seguraski sekula ez dugu jakingo zer ote dagoen atzean, gutxitan agertzen baita Arabako kasuan bezala ustez nora joan daitekeen diru publikoa.

6 urteko moratoriarekin, jarri dezatela Tolosan, Azpeitian, Zarautzen, Eibarren eta Irunen atez-ateko bilketa, beste herri batzuk ere euren kabuz jarriko duten bezala. Arazo bakarra dute: Gipuzkoako zaborren %80a gaika bilduta, haien negozio industriala, erraustegiak, ez du lehengairik izango. Hor dago koxka, eta haientzako arazoa. Beraz, ez dezagun gure burua engainatu, ez digute jaramonik egingo, borrokatu beharko dugu. Baina nik argi daukat, ez dute erraustegia martxan ikusiko!

Munduko hainbat tokitan bezala, etorkizuna Gipuzkoan ere "0 Zabor" dugu.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - **Unai Agirre** - Idoia Torregarai

## Buruntzazpi taldearen aurkezpena

Martxoaren 13an, infantil eta jubenil mailako txirrindulari lasterketa izan zen Zumartegi industrialdean. "Urbil" saria egon zen jokoan. Egun horretan bertan, Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako taldearen aurkezpena egin zen. Irudian dituzue denboraldi honetako txirrindulari eta entrenatzaileak. Gogoan izan talde honetan Lasarte-Oria zein Usurbilgo gazteak biltzen direla.



ZUBIETAN EGIN ZEN IKASTURTE HASIERAKO ARGAZKIA.
IRUDIAN, BURUNTZAZPIKO ESKOLAKO GAZTETXOAK ETA ENTRENATZAILEAK.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA



# A-8 autopistako zabaltze lanek kalteak eragin dituzte herri bideetan

**Orio eta Donostia artean A-8 autopistan, bi noranzkoetan lehen zeuden bi karrilei hirugarrena eransteko, 2007. urtetik zabaltze lanetan jardun dute. Lanek hainbat kalte eragin dituzte Usurbilgo lur eremuan, zehazkiago, autopista aldera doazen zenbait herri bideetan. Gainera, kamioi astunen joan etorriak edota halako lanek sortu ohi dituzten eragozpenekin bizi behar izan dute inguruko herritarrek.**



HERRI BIDEEN KONPONKETA-LANAK AMAITZEAR DIRA, UDABERRI HONETAN.

Oraingo legegintzaldia hasterako, herri bideen gaiari heldu behar izan zion egungo gobernu taldeak, autopista zabaltzeko lanak orduan hasi berriak baitziren.

Hasieratik Xabier Mikel Errekondo alkateak gogoratzen duenez, "lanak amaituta, herri bideak nola geratuko ziren", hori zen Udalaren kezka nagusietako bat. Bestea, arazoak izango zirela ziur izanda, ahalik eta gehien arintzea. Kezka horiek behin eta berriz helarazten dizkio Udalak obra zuzendaritzari. 2007az geroztik burutu dituzten hogeitik gora bilera dira horren guztiaren lekuko. Kamioiak nondik ibiliko diren eta seinaleak jartzeko beharraz jarduten dute bi aldeek lehen bilkuran.

**GORABEHERA UGARI**

"Erabilitako herri bideak berritzera konprometitu da obren zuzendaritza, Udalaren eskariz"

### Udalak, desjabetzeetan ahotsik ez

Elkarrizketek emaitza gisa, urte hartako abenduan dokumentu idatzi bat sinatzea ekarri zuten. Alkateak adierazten duenez, "herri bideak garbitu eta zainduko zituztela hitz eman arren, Udalak idatzizko konpromisoa nahi zuen". Zenbait konpromiso hartzen ditu obra zuzendaritzak; hala nola, desjabetutako bideak eta Aginagakoak baino ez dituztela erabiliko, beste biderik beharko balute jakinaraziko dutela eta berehalakoan, proiektutik kanpo zeuden bideak berritu eta konponduko zituztela.

Kontuan izan behar da, lan hauek burutu ahal izateko, autopista inguruko aldi baterako hainbat desjabetze egin zirela. Alkateak salatu duenez Udalak iritzirik eman ahal izan gabe. "Autopista Usurbilgo lurretatik pasa eta Udalak eztabaidan parte hartzeko aukerarik ez du izan", adierazi du Errekondok.

Herri bideon jarraipen zehatza burutu du Udalak, grafikoki, argazki eta bideoen bidez. Bideok katalogatzen dira, euren balorazio ekonomikoa egin, eta 3.800.000 euroko abala eskatzen dio Udalak obrako zuzendaritzari. Konponketa lanetan, diru-laguntza jasotzen azkenak herri bideak izango zirela irizten baitzion Udalak, eta azken finean, gain kostua Udalarentzat. Desjabetzeen dokumentazioan euskarak behar zuen trataera izatea ere bermatzea bultzatu du Udalak.

### Gertuko jarraipena

Hiru urteotan zehar, izan dira zenbait oztopo, gerora obrako zuzendaritzarekin burututako bileretan Udalak konpontzea lortu dituenak; hala nola, A-8 autopista gaineko Artikulako zubia. Autopista zabaltzeko altxa, eta honenbestez, itxi egin behar izan zuten. Alkateak gogoratzen duenez, "hilabetez itxia egon beharrean, itxialdia asko luzatu da".

Arratzaingo harrobian ere izan zen ika-mikarik. Autopista zabaltzeko lanetarako harria bertatik ateratzen hasi zirela gogoratzen du alkateak. "Gainean egonda, salaketekin lortu genuen harria hortik ez ateratzea", dio Errekondok. Bertakoa, kalitate oso oneko harria dela dio. Ezin ahaztu Arrateko bidea ere. "Bidea erabiltzen zuten kamioiek, baina bide hori ez zegoen aldi baterako desjabetzeen artean", dio alkateak. Horregatik, Udalak bidea moztea erabaki eta berriz bildu zen obrako zuzendaritzarekin. Lanetarako behar ez dituzten bideak erabiltzeari utzi eta kalteen erantzukizuna euren gain hartzeaz gain, ordura arte erabilitakoak berritzera konprometitzen da Udalaren eskariz, obrako zuzendaritza.

## Herri bide bat berreskuratu da

Prozesu honek guztiak duela 30 urtetik gora erabiltzen ez zen herri bide bat berreskuratzea ere ekarri du. "1974an A-8ak izorratutakoa. Aintzi-Tellegindegi artekoa", Xabier Mikel Errekondok adierazi duenez. Atzerapenik ez bada, azken bi herri bideen konponketak udaberri honetan bertan amai daitezke.

# Aurtengo aurrekontu proiektua onartu da, hasieraz eta gehiengoz

**2010erako aurrekontu proiektua hasieraz onartu zuen udalbatzaren gehiengoak, martxoaren 16an burutu zen ezohiko osoko bilkuran. Alegazioak aurkezteko epea dator orain, proiektua behin betirako onartu baino lehen. Inbertsioen atalean, gauzatu nahi diren egitasmoen artean aipagarrienak; Oiardo Kiroldegia handitzea, Santueneko frontoia, gerontologikoa edota Potxoenea kultur etxea dira.**



PASA DEN ASTEARTEAN AZTERTU ZEN 2010EKO UDAL AURREKONTU PROPOSAMENA.

Hamahiru milioi euro pasatxoko udal aurrekontua izango du Udalak 2010erako. Azken ezohiko osoko bilkuran aurkeztu, eztabaidatu eta udalbatzak onartu zituen aurrekontuok Ezker abertzaleak eta Aralarrek babestu zituzten, PSE-EE-ko udal ordezkaria abstenitu zen eta EAJ-PNV eta Alkarbide udal taldeko zinegotziek aurka bozkatu zuten. Hamabost eguneko epea dago orain alegazioak aurkezteko.

> **UDAL AURREKONTUAK**
>
> "Alegazioak aurkezteko epea dator orain; aurrekontu proiektua behin betiko onartu baino lehen"

## Aralarrena, aldeko botoa

Bozketa unea ailegatu aurretik, udal ordezkariek aurtengo udal aurrekontuak baloratzeko tartea hartu zuten. Joxe Ramon Furundarenak (Aralar) euren taldeak aldeko bozka emango zuela iragarri zuen, babesten zituzten hiru inbertsio nagusiak zeintzuk ziren aipatzearekin batera; Santuenean eraiki asmo den frontoia eta plaza inguruaren berritzea, Oiardo Kiroldegia handitzea eta Potxoeneako egitasmoa. Garrantzitsutzat jo zituen baita, gaztetxoei alternatiba emango dien ludoteka edota ados agertu ziren kirol taldeek jasoko dituzten laguntzetan aplikatuko den igoerarekin. Herriko ondarea baloratu eta ezagutzen joateko apustua egitea proposatzen zuen Furundarenak, turismoaren bidea jorratuz. Faltan sumatzen dute bestalde, herri barruko bide gorrien proiektu orokorra.

## PSE-EE, abstentzioan

Amaya Goyaranek (PSE-EE) gauzatuko diren inbertsioen artean, Santuenean burutu asmo den egitasmoa azpimarratu zuen, baita Kiroldegia handitzeko proposamena ere. "Apustu oso ausarta da", adierazi zuen Oiardoko kirol ekipamendu handitzearen inguruan zinegotzi sozialistak. Kirol Patronatutik lan ona egin dela azpimarratu zuen. Bestalde, larrialdiko diru-laguntzak ahotan hartu zituen Goyaranek. "Nahiago nuke diru partidok gehitu behar ez balira, baina partida aldaketaren bat egin beharko da", adierazi zuen.

## Alkarbiderena, aurkako botoa

Luismari Ormaetxeak (Alkarbide) balantzaren alde baikorrean jarri zituen Santueneako egitasmoa edota Oiardo kiroldegiaren handitzea, gogorarazi zuenez, "gure hauteskunde programan agertzen dira". Aurrekontuaren alderdi ezkorren artean, hondakinen kudeaketari lotuta sortzear den sozietatea aipatu zuen. Iazkoa bezala, "hau ere ildo beretik joan eta defizitarioa izango dela uste dugu". Bestalde, Ugartondo, Agerreazpi edota A-97 lur eremuko inbertsioak kolokan egon daitezkeela adierazi zuen. Ormaetxeak argudiatu zuenez, "diru sarreretako hainbat kopuru potolo, nahiko zalantzagarria da aurtengo ekitaldian jasotzea".

## EAJ-PNV ere, aurka

Iñaki Illarramendi (EAJ-PNV) udal aurrekontu proiektuaren aurka agertu zen, bere esanetan, "aurreko urteetan bezala, inbertsioak berak baitira". Potxoenea jarri zuen adibide gisa, baita konpost gunea ere. Azken egitasmo honen inguruan, aipatu gunera bideratu beharreko diru kopurua Eguneko Zentroan inbertitzea eskatu zuen; besteak beste, itxarote zerrendari edota langile faltari aurre egiteko. Baita larrialdietarako diru-laguntzak emateko ere. Hezkuntza alorreko hausnarketa plazaratu nahi izan zuen Illarramendik. Eskola pribatuetara Udaletik diru asko bideratzen zela eta, bere esanetan, "publikoaren aldeko apustua egin beharko genuke".

## Alkatearen esanetan, "orekatua eta ausarta"

Xabier Mikel Errekondok (Ezker abertzalea) aurrekontu proiektua, orekatu eta ausart gisa definitu zuen. Alkatearen hitzetan, "marjinalak izan diren gaiei heltzen die". Bestalde, azpimarratu zuenez, Ongizate Departamendutik jasotako proposamenak baino diru partida gehiago jaso dira aurrekontu hauetan. Larrialdiko laguntzei dagokienean, aurrekontuak egokitzeko aukera izango dela gogorarazi zuen. "Behar larririk gertatuko balitz, aurrekontuok horri erantzuteko aukera ematen dute", adierazi zuen Xabier Mikel Errekondo alkateak.

# Lokal komertzialak etxebizitza bihurtzeko udal ordenantza, onartua

**Bost herritarrek aurkeztutako alegazioei erantzun, eta merkataritzako lokalak etxebizitza bihurtzeko udal ordenantza behin betirako onartu zuen udalbatzak, martxoaren 16an burutu zen ezohiko osoko bilkuran. Alde bozkatu zuten Ezker abertzaleak, Aralarrek eta PSE-EE-ko udal ordezkariek. Aurka aldiz, EAJ-PNV eta Alkarbide udal taldekoek.**



UDARREGI IKASTOLA ONDOAN DAUDE MAIXU ETXEKO ETXEBIZITZAK.

Bestalde, Alokabide S.A. eta Udalaren arteko lankidetza-hitzarmenaren eranskina aho batez onartu zuen udalbatzak. Udarregi ikastola ondoan, Gernika ibilbidea 13an kokatzen diren Maixu etxeko sei etxebizitzen administrazioa eta mantenua kudeatzeko balioko du aipatu dokumentuak.

# Udan hasi litezke Santueneko frontoia eraikitzeko lanak

**Santuenean aurten Udalak eraiki nahi duen frontoia, eta bestelako eraberritze lanen haritik, Arau Subsidiarioetan aldaketa txertatzea hasieraz onartu zuen udalbatzak martxoaren 16ko ezohiko osoko bilkuran. Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu eta espedientea hogei lanegunez jendaurrean jarriko dute, alegazioak aurkezteko.**

Alkarbide udal taldetik, Luis Mari Ormaetxeak egitasmoarekiko adostasuna agertu zuen, nahiz gaineratu zuenez, "Ibai Ondo elkarteak erabilitako instalazio batzuk desagertzen diren". Horri erantzunez, Xabier Mikel Errekondok argitu zuenez, "euren jardueretarako beharrezko lituzketen baliabideak jasotzeko asmoa du proiektuak".

Auzotarrekin burutu dituzten bilerak ere gogoan izan zituen.

## Auzotarrekin elkarlanean

Gobernu taldeak proposamen zirriborroa prestatu eta gainerako bilakaera Santueneko auzotarrekin egin dela gogorarazi zuen alkateak. Lanak aurten burutuko direla iragarri zuen Errekondok. Atzerapenik ez bada, ekaina amaieran hasiko dira.

## Kiroldegiaren handitzea

Oiardo Kiroldegiko ekipamendua handitzeko Arau Subsidiarioetan egin beharreko aldaketa behin betirako eta aho batez onartu zuen udalbatzak, martxoaren 16ko ezohiko osoko bilkuran.

Erabakia Foru Aldundira igorri eta GAOn argitaratuko da.

## Laster hasiko dira gerontologikoa eraikitzeko lanak

Gaur egungo Kalezarreko mojen komentuko lur eremuan, hilabete gutxi barru hasiko dira lanak martxoaren 16ko ezohiko osoko bilkuran iragarri zenez. Aipatu bilkuran Udalak eta Matia Fundazioak izenpetu beharreko hirigintza hitzarmena hasieraz onartu zuten. Alegazioak aurkezteko hogei lanegun egongo dira. Inork erreklamaziorik aurkeztuko ez balu, hitzarmena behin betirako onartutzat joko da.

## Udal lanpostuen zerrenda, onartua

Udal aurrekontu proiektuarekin batera, aurtengo udal plantilla eta lanpostuen zerrenda hasieraz onartu zituen udalbatzaren gehiengoak. Alegazioak aurkezteko hamabost eguneko epea zabaltzekoak ziren. Tarte horretan, erreklamaziorik ez balego behin betiko onartutzat joko dira.

## Atalluko erabilera gabeko lur eremua

Atallu industrialdean dagoen erabilerarik gabeko eremu berdea udal beharretara egokitzeko Arau Subsidiarioetan aldaketa txertatzea onartu zuen udalbatzak hasieraz, martxoaren 16an burutu zen ezohiko osoko bilkuran. Espedientea hogei lanegunez jendaurrean erakusgai egongo da, alegazioak aurkezteko.

# "Apelliduak Abizendu" kanpaina abiarazi dute Buruntzaldeko udalek

Aguirreche, Echeverria, Jauregui, Arregui... eta horiek bezalako ehunka deitura euskaldun euskarazko grafiaz idatzita nahi dituenak oso erraz egin dezake. Bi tokitara bakarrik joan beharko du: Udaletxera eta Bake Epaitegira. Donostian jaiotakoa baldin bada, gainera, Donostiako erregistro Zibilera ere joan beharko du.

Hiru agiri eskuratu behar dira: errolda-agiria, Udaletxean eskatu behar dena; jaiotagiri ofiziala, jaioterriko Bake Epaitegian eskuratu behar dena; NANren fotokopia. Ezkonduek edo seme-alabak dituztenek Famili Liburua ere eraman behar dute. Hori da guztia. Agiri horiek herriko Bake Epaitegira eramatea nahikoa da, eta horrekin han bertan egingo dute abizenaren aldaketa.

Donostian erregistratuta daudenek jaiotagiri literala eskuratzeko, ordea, Donostiako erregistro Zibilera joan beharko dute. Erregistro Zibila Kalkutako Teresa plazan dago, Donostian. Zalantzaren bat duenak nahikoa du herriko Bake Epaitegian galdetzea, han emango dizkiete-eta argibide guztiak.

# Atez atekoari buruzko nazioarteko jardunaldiak egingo dira asteburu honetan

**_Atez ateko hondakinen bilketa, zero zaborraren bidean_ izeneko Nazioarteko Jardunaldiak burutuko dira martxoaren 26tik 28ra, asteburu honetan beraz. Usurbil, Hernani, Oiartzun eta Urnietako udalak, eta udalerri bakoitzeko herritar bilguneek antolatu dituzte, Italia edota Herrialde Katalanetako adituak bilduko dituzten ekitaldiak. Hitzaldiak, edota atez ateko bilketaren urteurrena gogoan izango dira hiru egunotan.**

Usurbil, Hernani, Oiartzun eta Urnietak badute euren arteko loturarik hondakinen kudeaketari dagokionean. Guztietan, hondakinen kudeaketa sistema aldatzearen aldeko apustua egin edota bide horretan, lehen pausoak emanak dituzte. Asteburu honetarako, hain zuzen, atez ateko bilketa eta zero zabor egitasmoak bateratzen dituzten Nazioarteko Jardunaldiak antolatu dituzte lau udalek eta aipatu udalerri bakoitzeko ingurumen alorreko zenbait herritar taldeek.

### Nazioarteko adituak

Atez ateko bilketen esperientziak gaitzat hartuko dituzten hitzaldi bana antolatu da, Usurbil, Urnieta, Hernani eta Oiartzunen. Italia edota Herrialde Katalanetako adituak arituko dira hizlari lanetan. Saio guztiak ordu berean hasiko dira. Usurbilgoa Sutegin burutuko da, Roberto Cavallo mikrobiologo italiarraren eskutik. Hondakinen gaikako bilketa hamabost urtez lantzen diharduen ERICA kooperatibako kidea da bera, "Zero Waste" (Zero Zabor) ideiaren teorikoetako bat.

Larunbatean, bezperan lau udalerrietan eskaini diren hitzaldiak bateratu eta guztiak, mahai inguru batekin batera, Hernanin eskainiko dira. Jardunaldiotarako gure artera etorritako aditu guztiak Sandiusterrin bilduko dira, "Hondakinen Atez Ateko bilketatik Zero Zaborreruntz" izenburupeko saioan.




USURBILGO HONDAKIN BILKETA EGIN NAHI DUTE OIARTZUN ETA HERNANIKO UDALEK.

Hitzaldiotarako, eskutitz bidez Gipuzkoako udalerrietako alkateei egitaraua eta gonbita luzatu diete antolatzaileek. Ingurumen alorreko eragileak, eta noski, herritarrak ere gonbidatuta daude hitzaldiotan parte hartzera.

### Festa giroa, igande goizean

Atez ateko bilketak lehen urtea bete berri du Usurbilen eta jardunaldion barruan, martxoaren 28an gogoraraziko dute. Informazioa izango da urteurren honetako osagaietako bat. Gune desberdinetan, besteak beste, atez ate biltzen diren hondakinekin zer egiten den jakingo dute herritarrek, hau da, hondakin zatien tratamendua zer modutan burutzen den. Usurbilgo bilketa sistema bera martxan duten Herrialde Katalanetako eta Italiako udalerrien zerrenda ere ezagutu ahal izango da; udalerriok zenbat biztanle dituzten eta atez ateko bilketa noiz abiatu zuten. Autokonpostajea, izango da erakusketako beste ardatza. Ehunka herritar ari dira etxean sortzen duten organikoa, tratatzen, birziklatzen eta organikoa ongarri bilakatzen. Konposta egiteko gailuak bertan izango dira.

Ingurumen alorreko hainbat bilguneetako ordezkaritza gonbidatzeko asmoa dute antolatzaileek igandeko hitzordurako. Hala nola, Greenpeace, Eguzki edota errausketaren aurkako plataformak mahai bana izango dute.

## Jardunaldiak, egunez egun

### MARTXOAK 26, OSTIRALA

**19:30 hitzaldiak:** "Hondakinen Atez Ateko bilketa, esperientziak eta etorkizuneko erronkak".

**Tokiak eta hizlariak:**

-Usurbilen, Sutegin: Roberto Cavallo.

-Hernanin, Sandiusterrin: Ignasi Puig Ventosa (ingeniaria, hondakinen gaikako bilketan aditua).

-Oiartzungo udaleko udalbatza aretoan: Josep Maria Tost Borrás (atez ateko bilketa duten Herrialde Katalanetako udalerrien elkarteko lehendakaria eta Riudecanyes-eko alkatea)

-Urnietako Lekaio kultur etxean: Assumpt Boba Caballé (atez ateko bilketa duten Herrialde Katalanetako udalerrien elkarteko zuzendaritzako kidea eta Argentonako zinegotzia).

### MARTXOAK 27, LARUNBATA

**9:30-13:30 Hernaniko Sandiusterrin hitzaldiak eta mahai ingurua:** "Hondakinen Atez Ateko bilketa, Zero Zaborreruntz".

**Hizlariak:** Assumpt Boba Caballé, Roberto Cavallo, Rossano Ercolini (Ambiente Futuro, Zero Waste mugimenduko elkarteko kidea, Txingudiko errauste plantaren aurkako kanpainan GAIA erakundearen biltzarrean parte hartutakoa) eta Josep Maria Tost.

### MARTXOAK 28, IGANDEA

**Goizean zehar, Atez Ateko bilketaren urteurren festa Usurbilen.**

**Oharra:** hitzaldiak gazteleraz eta doan. Jardunaldietan parte hartzeko, aldez aurretik izena ematea gomendatzen da honako web gune hauetan:

usurbil.net/atezate
hernaniatezate.net
atezate.oiartzun.org

# %65 igo da langabezia Buruntzaldean

**Langabeziak gora egin du azken hilabeteotan. Gauza jakina zen. LAB sindikatuak igorri dizkigun datuen arabera, %65ean igo da langabetu kopurua Buruntzaldean. Usurbilen, kopuru hori altuxeagoa da. 2008ko uztailetik 2010eko otsaila bitartean, %71 igo zen langabezia kopurua gure herrian.**

Usurbilen, 2008ko uztailean, 177 herritar zeuden langabezian. 2010eko otsailean, langabetu kopurua 303koa zen. Beraz, 18 hilabetetan, langabezia %71,75ean igo da.

Eskualdeko emaitzak aldamenean dituzue. Datuei erreparatuz, Usurbil da krisia gehien nabarmendu duen herrietako bat.

| LANGABETUAK | 2008-VII | 2010-II | %Langabetu gehiago |
|---|---|---|---|
| ANDOAIN | 576 | 1.006 | %74,65 |
| ASTIGARRAGA | 135 | 195 | %44,44 |
| HERNANI | 762 | 1.144 | %50,13 |
| LASARTE-ORIA | 720 | 1.329 | %84,58 |
| URNIETA | 212 | 303 | %42,92 |
| USURBIL | 177 | 304 | %71,75 |
| GUZTIRA | 2.582 | 4.281 | %65,80 |

Iturria: LAB sindikatua

LAB SINDIKATUAREN ARABERA, 4.000TIK GORA LANGABETU DAUDE ESKUALDEAN.

# “Enplegua suntsitzearen aurkako martxa” deitu du LAB sindikatuak asteburu honetarako

**Krisi ekonomikoak langabezia tasan izan duen eragina salatzeko, martxa bat antolatu du ostiral honetan LAB sindikatuak. “Buruntzaldea alarma gorrian” lemapean abiatuko da Usurbildik eta Hernanin amaituko da.**

“Enplegua suntsitzearen aurkako martxa” izango dela iragarri du LAB sindikatuak. Usurbildik abiatuko da martxa hori, ostiral honetan, martxoak 26, eta Hernanin amaituko da ekitaldi batekin. Era honetan, eskualdeak ekonomikoki bizi duen egoera larria salatu nahi du.

Langileei zuzendutako ekimen hau Usurbilgo Mikel Laboa plazatik abiatuko da, goizeko 9:00etan. Lasarte-Oriara 10:30ean iritsiko da eta handik Urnietarako bidea hartuko dute. Urnietan hamaiketakoa egin ondoren Hernanira joko dute ondoren. 12:30ak aldera amaituko da LAB sindikatuak deitu duen martxa.



BURUNTZALDE OSOA ZEHARKATUKO DU OSTIRALEKO MARTXAK.

ALIPROX
Kale Nagusia 10
✆ 943 361 182
USURBIL

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ✆ 943 362 725


txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA




Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Euskarako Batzordeak

# EUSKARA BURUZ GORA




# ETXEAK DU GILTZA!

# Itziar Dorronsorok eta Xabi Arrutik Saharako X. Maratoian parte hartu dute

**X. Maratoia ospatu berri da Saharan. Badira bertara joandako hainbat euskaldun, baita usurbildar bikote bat ere; Itziar Dorronsoro eta Xabi Arruti. Aipatu kirol proba ordea, sahararrek bizi duten errealitatea ezagutzeko aitzakia baino ez da izan. Gauza gutxirekin hain aberatsa nola izan litekeen azaldu digu Itziarrek honako lerrootan.**



ASTEBETEZ IZAN DIRA SAHARAN.

**NOAUA! Nondik sortu zen bidaia honetan parte hartzeko ideia?**

**Itziar Dorronsoro.** Lagun baten bidez izan genuen Saharako maratoiaren berri. Antolatze lanetan parte hartzen du eta esan zigun aurten urte borobila izango zela. Hortik atera zen ideia. Betidanik izan genuen Sahara ezagutzeko gogoa eta aukera ona sortu zitzaigun. Azken unean animatu ginen. Lasterketaren aitzakiarekin bertako errealitatea ezagutu eta hango berri izan dugu.

> **ITZIAR DORRONSORO**
>
> “Egun guztian beraiekin zaudenez, oso harreman estuak sortzen dira”

**N. Lasterketan parte hartu zenuten. Maratoiko baldintzak gogorrak izango ziren ezta?**

**I. D.** Hemengoarekin zerikusirik ez du. Desertuan korrika aritu behar zara, hondar gainean. Hondarra beti ere ez da berdina, leku batzuetan gogorra da, baina bestetan biguna. Zenbat eta lasterketa luzeagoa izan, orduan eta zailtasun edo gogortasun maila handiagoa du lasterketak. Denok abiapuntu desberdina genuen. Lasai hasi ginen, besteak aurrean. Hasieran nora ote zoazen galdetzen diozu zeure buruari. Jendea aurretik doalako, bestela lur eremua berdina denez, ez dakizu nondik zoazen.

**N. Kirol proba azkenean elkartasun bidaia honetako aitzakia da, ezta?**

**I. D.** Lasterketa egitarau baten barruan sartzen zen, baina bestela, astea bi sendirekin igaro dugu. Familia batean lehen lau gauak igaro genituen, eta bigarrengoarekin, azken bi gauak. Eguna beraiekin pasatzen genuen. Beraiek ere zure zain daude. Erregea bezala hartzen zaituzte euren etxean. Bertako eskola edota ospitalea ezagutu ditugu, ingurukoen etxeak… Egun guztian beraiekin zaudenez, harreman bereziak sortzen dira emozionalki, oso harreman estuak. Agurtzeko unea iristen denean, zu bazoaz, baina beraiek han gelditzen dira. Harrigarria da hain denbora gutxian, hain sentimendu sakonak sortzea.

## Aberatsak, gizatasunean

**N. Bizitako esperientziatik, ezagututakotik zer azpimarratuko zenuke?**

**I. D.** Hara zoaz, hango errealitateak ez du zerikusirik hemen egunerokotasunean bizi dugun errealitatearekin. Emakumeak dira familiaren ardatz nagusi eta garrantzitsuena. Motorea emakumea da. Gizonezkoak agertzen dira, baina Ejertzitoaren inguruan dabiltza batzuk. Lanerako, denda txiki batzuk badaude. Aldi berean konturatzen zara, ez dagoela ezer baina zein aberatsa den hango esperientzia, gizatasunaren aldetik. Hemen gauza material asko izatera ohituak gaude, han halakorik ez dute. Gizatasunaren aldetik oso aberatsak dira, ordea. Gauza asko pentsarazten dizkizute. Saharan edo beste nonbait, halako errealitate bat ezagutzeko aukera duenak, kontrastatzeko ezagutzea gomendatuko nioke, hona itzultzean berriz ere egunerokotasunean murgildu eta hemengora ohitu arren. Halako lekuak eta errealitateak ezagutzea ondo dago non gauden jakiteko. Baita benetan garrantzitsua dena baloratzeko ere.



ESPERIENTZIA ABERASGARRIA IZAN DELA ADIERAZI DIGU ITZIAR DORRONSOROK.

# Itziar Dorronsoro: "Nazioarteko laguntzatik iristen zaienarekin bizi dira"

**NOAUA. Komunikabideak ere zuekin joan dira. Nola bizi dute, jendea hemendik hara joate hori?**

**Itziar Dorronsoro.** Kanpotik ailegatzen diren guztiei, ate ireki bat izango balitz bezala begiratzen diete.

Guri begira daude. Hemengo berri badute, nahiz beraien bizitza hango testuinguruan kokatua egon. Haur asko ere honantz etortzen dira. Haur horiek hemengo errealitatearen berri ematen dute gero hara. Telebista bidez munduko beste zati bat nola bizi den ikusten dute. Eta kontuan izan behar da, nazioarteko laguntzatik iristen zaienarekin bizi direla. Gatazka noizbait konponduko den esperantzari begira bizi direla uste dut.



Maratoia, Saharako errealitatea ezagutzeko bidea eman die Itziarri eta bere bikoteari.

**ITZIAR DORRONSORO**

"Guri begira daude. Hemengo berri badute, nahiz beraien bizitza hango testuinguruan kokatua egon"

**N. Jarrera itxaropentsua sumatu diezu beraz?**

**I. D.** Beraiek esperantza dute, baina bestalde, urte asko dira hor zain daudenak. Etsipen puntua ere hor egon liteke. Beti ere zeinekin topatu eta norekin hitz egiten duzun, ikuspuntuak desberdinak izan daitezke.

**N. Bizi baldintza gogorretan bizi dira, oinarrizkoenarekin.**

**I. D.** Oinarrizko gaiak badituzte. Gosea ez dute pasatzen oraingoz, baina beti ere kontuan hartu behar da giza laguntzatik bizi direla. Haur eskolatuak badaude. Baldintza gutxienekoak zein diren zehaztea ez da erraza, oso gutxirekin bizi liteke.

Ura mugatua dute, kamioi bat etortzen zaie astero depositua betetzera. Jana kanpotik ailegatzen zaiena. Hala bizi liteke? Gure bizi baldintzekin alderatuta, alde handia dago.

**N. Zergatik gomendatuko zenioke norbaiti zuen bidaia egitea?**

**I. D.** Azken finean, beste erreferentzia bat izateko. Beste jende bat nola bizi den ezagutzeko eta horrek berak, hain gutxirekin hainbeste ekartzeko aukera ematen dizulako.

Hain gauza gutxi izanda, hain aberatsa izateko aukera ematen duelako.

**N. Saharara bueltatzeko asmorik baduzue?**

**I. D.** Noizbait bueltatzea espero dut. Asko markatzen zaitu, neure kasuan ez nintzelako behin ere halako leku batean egon. Orain arte egin ditudan bidaia motekin ez du zerikusirik.

## Helmugaratzea, "oso hunkigarria"

Elkartasun izaeradun maratoiko proba desberdinak burutu ziren otsailean. Itziar Dorronsorok hamar kilometroko ibilbidea osatu zuen, bikote lagun Xabi Arrutik maratoi erdia egin zuen.

Oso gustura aritu zirela dio Itziarrek, batez ere helmugara ailegatzeko azken metroak falta zirela. "Oso hunkigarria da, ze haur guztiak eskoletatik ateratzen dira, zu animatzera eta zu ikustera. Oilo ipurdia jartzen zaizu. Haur eta emakumeak txaloka, animatzen, euren ulu berereziarekin", adierazi du Itziar Dorronsorok.

## Bi elkartasun hegazkin irten ziren Sahara aldera

Janaria, arropa, sendagaiak… Halako kasuetan ohikoa denez, ahal bezain beste laguntza eraman ohi da Sahara aldera. X. Maratoiaren aitzakiarekin ere, oinarrizko gai ugari eraman zuten Euskal Herritik. Bi hegazkin irten ziren harantz otsailean, haietako bat Euskal Herritik.

# Xabier Olano eta Garazi Iturralde Seu d´Urgelleko kanal olinpikoan lehiatu dira

**Bi gazte hauen kirol jarduera gehiegi ezagutzen ez den horietakoa da, piraguismoa, munduko modalitateen artean oihartzun gutxi duen horietakoa. Txikitan hasi ziren piraguarekin eta gaur egun puntako kirolariak dira. Pasa den astean, Katalunian izan ziren lehiatzen, Seu d´Urgelleko kanal olinpikoan.**

*Rodeo* edo estilo librea, ibaiko olatu batean ahalik eta maniobra gehien eta era polit eta ikusgarrian burutzea. Horretan datza Xabi eta Garaziren kirol jarduera.



GARAZI ITURRALDE.



XABIER OLANO.

## Ura, izoztuta

Orain dela aste bete, Katalunian izan ziren, Seu d'Urgelleko kanal olinpikoan. “Oso ondo atera zitzaigun bioi, nahiz eta izugarrizko hotza egin. Ura izoztuta zegoen eta izotza puskatu beharra izan genuen. Baina eguzkiak berotzen zigun”, adierazi digute NOAUA!ra igorritako kronikan.

“Oso gustura etorri ginen handik, asteburu oso polita igaro genuen. Baina ez da azkeneko txapelketa, lehenengoa da, beraz espero dugu beste guztietan ere berdin jarraitzea”. Animo ba!

# Iñaki Añorga eta Mikel Otaegi, Murtziako duatloi batean

**Martxoaren 14an Murtziako Caracava de la Cruzen burututako duatloi proban parte hartu zuten Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeko bi kideek; Iñaki Añorgak eta Mikel Otaegik. Aipatu txapelketan, estatuko autonomietako kirolari taldeak lehiatu ziren. Gure artetik hamabi kirolari joan ziren Murtziara.**

Añorgak gogoratzen duenez, “izugarrizko maila zegoen bertan, estatuko duatloilari onenak zeuden”. Bere esanetan ezin zitekeen hobetu lortu zuten emaitza. Mutilen taldea bosgarren postuan sailkatu zen, neskak zazpigarren. Mutil taldeen artean, Galiziak irabazi zuen, Herrialde Katalanetako taldeak nesken artean. Sailkapen orokorrean ere kataluniarrak garaile eta euskaldunak seigarren.

## Barakaldon, bikain

Martxoaren 21ean Barakaldon burutu zen proban, Mikel Otegi lehenengoa izan zen. Iñaki Añorgak bosgarren postuan amaitu zuen.



EUSKADI TALDEAREKIN LEHIATU ZIREN MURTZIAKO DUATLOIAN.

Martin Larrañagarekin batera, Baxurde Txikik lehen postuan amaitu zuen taldekako sailkapenean.







# Anjel Errasti, Usurbil FT: “Galtzen ikastea, askotan, irabazten jakitea baino zailagoa da”

**Hogeita lau jokalarik jantzi dute nesken taldean, Usurbil FT-ko kamiseta 2009-10 denboraldi honetan. Giro ona eta lanerako gogoa dira, taldearen ezaugarri nagusiak. Oinarri sendoa sortzea berriz, taldeko entrenatzaile lanetan diharduten Errasti anaien helburua.**



NESKEN TALDEA KOPA JOKATZEN ARI DA EGUNOTAN.

**NOAUA. Zer moduz doa denboraldi hau?**

**Anjel Errasti.** Hasi zirenetik hona asko hobetu dutela nabaritu da. Gu ere gustura gaude, eta gehiago ezin da eskatu. Jokalari batzuk berriak dira.

**N. Talde berria martxan jarri duzue beraz?**

**A. E.** Badira lehendik futbolean zebiltzan jokalariak, baina ia hutsetik hasi behar izan dugu. Bestela, jokalariak gustura dabiltza eta ondo moldatzen gara.

**N. Oraintxe zer fase jokatzen ari zarete?**

**A. E.** Kopa jokatzen ari gara. Hiru itzuli jarri dituzte. Nahiko denboraldi luzea izango da, maiatzaren 20ra arte ez dugu bukatzen. Nahiko luze joango zaigu.

**N. Taldearen ezaugarri azpimarragarrienak zeintzuk direla esango zenuke?**

**A. E.** Talde nahiko berria da. Jarrera duten indar gune garrantzitsuena, azken partida batean bezala. Galdu egin genuen baina denek borrokatu zuten, ondo ibili ziren. Horrek balio du. Bestalde, nik uste hiruzpalau neska badira, maila honetan edozein taldetan jokatuko luketenak. Entrenamenduetara ere etortzen dira jokalariak, nahiz batzuk kanpoan izan ikasketengatik. Gu futbol mundutik gatoz, eta gainera, irabaztea gustuko dugun pertsonak gara. Uste genuen gehiago egitea bazegoela, baina egun balore gehiago ematen diogu jokalariei, pertsonei.

**N. Futbolarekiko zenuten ikuspegia ere aldatu egin da beraz?**

**A. E.** Gu ez geunden galtzera ohituta. Hori ere hor gaudenoi ondo etorri zaigula uste dut. Indartsu ekin genion denboraldiari, mundua jango genuela iruditzen zitzaigun eta azkenean ez da hala izan. Hori ere positibotzat hartu behar da. Galtzen ikastea askotan irabazten jakitea baino zailagoa da.

ANJEL ERRASTI

“Usurbilen dauden instalakuntzekin hemen kirola egitea pribilejio hutsa da”

**N. Denboraldi amaiera, nola iruditzen duzu?**

**A. E.** Ez dakit datorren denboraldian jarraituko ote duten edo ez, baina aurtengoa oinarri bat jarrita amaitu nahi genuke; beraiek jakitea zer posiziotan, non moldatuko diren ondoen. Futbolaren alorrean, badute zer ikasia, baina beste udalerrietan bezala hemen oinarri hori balego...

**N. Bukatzeko taldeari mezua.**

**A. E.** Taldeari, orain arte bezala segitzeko. Beraiekin oso gustura gaude, zoragarriak dira. Futbolerako kontzeptuak aldatu beharrak daude, baina hala segitzeko eta animatzeko. Zuzendaritza taldeari egiten dabiltzan lanagatik eskerrak eman, Usurbilen dauden instalakuntzekin hemen kirola egitea pribilejio hutsa baita. Gu hasi ginenean ez zegoen ez zelai, ezta ezer ere.

## “Nesken futbola orain ari da pixkanaka gora egiten”

**NOAUA. Kezkarik bai taldeak irailetik aurrera jarraituko ote duen?**

**Anjel Errasti.** Hemen bada talde bat, urteak daramatzana. Neska hauek uzten badute eta atzetik inor ez badator, nesken futbola hemen bukatuko da. Bestalde, guk jarraituko dugun ere ez dakigu. Halere, jarraitzekotan taldeari lehiakortasun pixka bat ematea nahi genioke; beste hiruzpalau neska etorrita. Aurten gurean izan bagenitu, maila honetan ondo ibiltzeko aukera izango genuen. Hona datorrenak etor dadila futbolean jokatu nahi duelako.

Herri batzuetan gehiago besteetan gutxiago, nesken futbola orain ari da pixkanaka goratzen. Mutilak futbol eskolan hasi dira, neskekin ere hala hasi nahi genuke.

## Agenda !!

### Martxoak 26 ostirala

- Txerrikiren antzezlana, Artzabalen. “Hiru desioak” obra. 17:30ean. Jubilatuen Astea 2010.

### Martxoak 27 larunbata

- Kantu Jira, 19:00etatik aurrera frontoitik abiatuta.

### Martxoak 28 igandea

- **Ordu aldaketa. 02:00etan 03:00ak izango dira.**
- 12:00etan meza nagusia. 14:00etan bazkaria Aialde Berri sagardotegian. Jubilatuen Astea 2010.

### Goardiako farmaziak

**Martxoak 25, osteguna**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Martxoak 26, ostirala**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Martxoak 27, larunbata**
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Martxoak 28, igandea**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Martxoak 29, astelehena**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Martxoak 30, asteartea**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 31, asteazkena**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Apirilak 1, osteguna**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Apirilak 2, ostirala**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Apirilak 3, larunbata**
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Apirilak 4, igandea**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

*GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ*
***Chucla farmazia** (22:00-09:00),*
*Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)*
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

# Usurbiltzen Taldea apirilaren 12an bilduko da berriz

**Aste Santuko oporraldia dela eta, produktu ekologikoak sustatzeko herrian sortua den Usurbiltzen Taldeak hilero lehen astelehenean egin ohi duen bilera astebetez atzeratuko du. Apirilaren 5ean ez, 12an bilduko dira, 18:00etan Artzabalgo egoitzako aretoan.**

Bilgunean parte hartzen ari diren produktu ekologikoen ekoizle kopurua ugaritzen doa. Barazkiekin hasi ziren urtarrilean. Martxoaren 1ean burutu zuten bileran, Usurbiltzen taldeko kideek ogia eta txerriki gordinak dastatu zituzten, irudian ageri den moduan. Apirileko bilkurarako, sagardoa eta gazta ekartzekotan dira. Eta arrautzen lehen banaketa burutuko dute.



MARTXOKO BILKURAN, OGIA ETA TXERRIKIAK DASTATU ZITUZTEN.

Dagoeneko produktu ekologikoz osatutako otarrak 35 herritarrek jasotzen dituzte. Beste 27 otarrak jasotzeko zain daude. Itxarote zerrendan sartu nahi duenak, ekimen honetan izen emateko bide ezberdinak ditu; hileroko bilkurara joanda, taldeko kide batekin harremanetan jarrita edo e-mail bat bidalita: usurbiltzen@gmail.com

## Larunbat honetan, kantu-jiran ibiltzeko aukera

Usurbilgo Kantu Taldea, sortu zenetik honako ohiturari jarraituz, hilabeteko azken larunbatean ibili ohi da kantu-jiran. Aste honetan, beraz, euskal kantuen inguruan arratsalde polit bat igarotzeko aukera izango da. Beti bezala, arratsaldeko 19:00etan abiatuko dira frontoitik. Esan gabe doa, herritar denak gonbidatuta daudela.



## Eskubaloiari esker, Urdairan birentzat afaria irabazi du

Lurdes Zinkunegiri egokitu zaio Urdaira sagardotegian bi lagunentzako afaria, eskubaloi elkartekoek antolatzen duten errifa zozketan. 2.483 zenbakia izan da saritua. Ohi bezala, eskubaloi elkartekoek errifa zozketan parte hartzen duten jatetxe eta herritarrak eskertu nahi dituzte.



Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.com

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
*Kale Nagusia 10, 1.C4* *20170*
*Tlf 943 37 08 78* *USURBIL*

### Etxebizitza

- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
-Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gauetan).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
-95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
-Santuenea 26an 60metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
-Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

### Salerosketak / garajeak

- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Aprilia Leonardo 125 motorra sagai, egoera onean. 700 euro eta iraila arteko segurua barne. 665715321
- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
-Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
-Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terrenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
-Atxegalden 33 metro koadroko lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. 943361265.
-50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

### Lanpostuak

#### Lan-eskaerak

- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- Esperientziadun emakumea behar da goizez etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Hiru orduz: goizeko zazpietatik hamarretara. 687 055 166.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

#### Lan-eskaintzak

- Urte asko herrian daramatzan emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak edota haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi malgua. 687 348 223 edo 943 364 310.
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
-Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
-Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziduna. 606 800 837.
-Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
-Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
-Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
-Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
-Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
-Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

### Bestelakoak / Galdutakoak

- 1,35 metroko ohe artikulatu berri bat daukat salgai 450 eurotan. 688803528.
-Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
-Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatoan. 635729637
- Otsailaren 20an txamarra marroi bat galdu nuen Olarrondon. 600768570.
- Bideo-muntaiak egiten dituen pertsona bat behar dugu. 943 374061.
- 160 luzera x 30 zabalera x 77 altuerako kaoba koloreko komoda bat daukat prezio onean salgai. 636540788
- Otsailaren 3an belarritako bat galdu dut Usurbilen. Perla txuri bat dauka. Eskertuko dugu. 943365958
- Bi zilarrezko eraztun galdu ditut. Batek hiru delfin ditu eta besteak bat. Balio sentimental handikoak. 666177913
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
-Dorleta Kinkildegia traspasatzen da. 609099824.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan. Telefono zenbakia: 616260451
-7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiak, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
-Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
-Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



**Zorionak Eneko!** Ondo ondo pasa ezazu zure eguna. Muxu handi bat etxeko guztien partetik.



**Urte askuan Ariana!** Larunbatean 3 urte beteko dituzu. Muxuak Agiñako lagunen partez!

### Hildakoak



**Julian Izaguirre Aldabalde**
81 urterekin hil zen
Kalezar



**Zorionak Udane!** 26an 6 urte potolo egingo dituzu alajaina. Ondo pasa eta gozatu, zure aiton amonak, izeba osabak eta lehengusuen partez. Muxu handi bat.



**Joritz, txapeldun!** Ostegunean 4 urte beteko dituzu! Urte askuan eta muxu handi bat Agiñako lagunen partez!



**Zorionak Kimetz!** Martxoaren 29an egingo dituzu 4 urte. Etxeko guztien partez, zorionak eta muxu handi bat! Zorionak zuri...



**Zorionak Eluxka!** Apirilaren 4an urteak egingo dituzu. Dagoeneko esku bete izango dira. Ondo pasa *merendolan* eta muxu asko Kororen partez!



**Zorionak Natali!** Bi urte egingo dituzu martxoaren 26an. Etxeko guztien partez zorionak eta txokolatezko muxuak!



**Zorionak Macario!** Martxoaren 21ean egin dituzu urteak eta ez gara ahaztu. Zorionak eta besarkada handi bat etxekoen partez!


PORTULARRUME
Iturgindegia , manparak , Bainuko altzariak
LIKIDAZIOA!!!! AZKEN EGUNAK!!!
Jubilazioagatik
Gure denda itxiko dugu dagoeneko eta Portularrumek eskerrak
eman nahi dizkizue usurbildarrei
urte hauetan guregan izandako konfidantzagatik.
Azken likidazioa egingo dugu, etorri zaitez! Aukera paregabeak,
azken egunak!!!
Kale Nagusia 10 · © 943 364 637 / 943 365 299


erredakzioa@noaua.com
www.noaua.com
Noaua!
Oporretara goaz, datorren aldizkaria apirilaren 16an

# TXOTX!!


AIALDE BERRI
Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731
Santuenea


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867


SAIZAR
Betiko Sagardoa
Kalezar Auzoa, 39 · USURBIL · Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA · ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ✆ 943 55 69 81


ERRETEGIA·NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA
Egunero irekia.
Arratzainzar Baserria
info@agroturismoarratzain.com
Telf: 943 36 66 63
20170 USURBIL


✆ 943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com


AGINAGA
Sagardotegia
Urte osoan txotxetik
Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com